

Kultur ekitaldiz beteta iritsi da apirila

Kulturala izango da aurtengo apirila Usurbilen. Antzerki, kontzertu, ikastaro eta beste-lako ekitaldiz josita dator.

Apirilaren 7an hasi eta hilabete bukaera arte Sutegik ekitaldi ugari jasoko ditu bere baitan.


Anariren kontzertua izango da hila-beteko lehena. Apirilaren 7an “Zebra” diskoa aurkeztera baitator.

Apirilaren 8an larunbata, antzerki saioa izango da Santuenean, “Arratsalde bat zinean” izeneko obra.

Hilaren 12an Sagardo Egunaren aurkezpen ekitaldia egingo da Saizar Sagardotegian (aurtengoa XXV. edizioa izango da).

Apirilaren 23an haurrentzako “Groau!” antzerkia eta hilaren 29an “Ahulkiak” antzezlanak izango dira Sutegin ikusiko ditugun bi antzezlanak.

Ezin ahaztu apirilaren 25erako



HARKAITZ CANO IDAZLEA,

“AHULKIAK” ANTZEZLANEKO KIDEA.

Sagardo Egunaren Lagunak elkarrekin antolatu duen ikastaroa: “Sagarra, sagardoa eta sagarkiak sukaldaritzan”. Xabier Tello izango da irakaslea eta ez da egun bakarreko ikastaroa izango: maiatzaren 2, 9 eta 16an izango du jarraipena. Matrikularen prezioa 30 eurokoa.

Apirilak 7, ostirala

- 22:30ean Anariren kontzertua Sutegin. Antolatzailea: NOAUA!

Apirilak 8, larunbata

- 12:00etan, “Arratsalde bat zinean” antzerkia Santuenea Kultur Elkartearen aretoan.

Apirilak 12, asteazkena

- Gonbidatu eta komunikabideentzat, Usurbilgo XXV. Sagardo Egunaren aurkezpen ekitaldia Saizarren.

Apirilak 23, igandea

- 16:30ean eta 18:30ean (bi saio), “Groau!” antzezlanak Sutegin.

Apirilak 25, asteartea

- 19:30ean, “Sagarra, sagardoa eta sagarkiak sukaldaritzan” ikastaroa hasiko da Agerialden.

Apirilak 29, larunbata

- 22:30ean, “Ahulkiak” antzezlanak Sutegi Kultur Etxean.

Maiatzaren 5ean hasiko da Jexux Artze Taldeak prestatu duen kultur astea

2003tik hona, Jexux Artze Taldeak urtero ekitaldi sorta antolatu ohi du maiatza aldean. Aurten bada berrikuntzarik: Sutegin egingo dira ekitaldi denak. Usurbilgo Udalaren babesarekin eta NOAUA! Kultur Elkarrekin lagunduta, film emanaldi bat, kontzertu bat eta antzezlan bat proposatu nahi digute.

Maiatzaren 5ean 22:00etan, “Aupa Etxebeste!” filma ikusteko aukera izango dugu.

Maiatzaren 6an larunbata, Pier Paul Berzaitz kantaria eta bere taldea hurbilduko dira Sutegira.

Eta bukatzeko, maiatzaren 13an 22:30ean antzezlanak Sutegin: “Larru haizetara”. Ez dok hiru konpainian euskal antzerkian eskarmentu handia duten bi partaide bildu dira: Mikel Martinez eta Patxo Telleria.



DISKO BERRIA AURKEZTUKO DU
PIER PAUL BERZAITZ KANTARIAK.

Film emanaldia doan izango da baina gonbidapenak aurretik jaso beharko dira. Pertsonako gehienez bi. Kontzerturako eta antzerkirako sarrerak Lizardin eta Mahukan erosi ahal izango dira, aurretik 8 eurotan eta bertan 10 eurotan.

Apirilaren 26an,

Andoni Egañaren hitzaldia

Andoni Egaña bertsolaria Ahozkotasanari buruzko hitzaldia eskaintzera etorriko da Usurbila. Apirilaren 26an asteazkena, arratsaldeko 19:30ean Sutegiko auditorioan.

Nafartarrak kultur taldearen eskutik iritsiko da Andoni Usurbila. Aipatzekoa da talde honek web-gunea zabaldu berri duela honako helbidean: www.nafartarrak.com.

Orain arte egindako ekitaldi guztien irudiak jasota daude.

